



Confederación Coordinadora de
Personas con Discapacidad Física
y/u orgánica del País Vasco.
Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa
duten Euskal Erkidegoko Federazio
Koordinatzailea

GUTXITASUNEN BAT DUTENENTZAKO **BALIABIDEEN GIDALIBURU BAT ARGITARATU DU** **ELKARTEANek**

- Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko Federazio Koordinatzaileak gidaliburu bat argitaratu du, gutxitasunen bat dutenei jakinarazteko zer baliabide eta laguntza dituzten eskura Euskadin.
- Gidaliburuak zuzeneko informazio baliagarria dakar, antolatuta: gutxitasun-maila aitortzeko eman beharreko urratsak; laguntzak eta zerbitzuak bideratzeko izapideak; eta gutxitasunen bat dutenek eta haien senideek zer baliabide dituzten gaur egun hezkuntza, lan, familia, justizia, garraio, etxebizitza, irisgarritasun eta osasunaren arloan.
- Gutxitasunaren gaineko eskumenen egitura oso konplexua da Euskadin eta, horregatik, interesdun askok ez dakite zer baliabide dituzten eskura, ez dituzte erabiltzen eskura dituzten baliabide guztiak edo denbora asko galtzen dute leihatilaz leihatila, administrazioko izapideak egiten.
- Federazioak 15.000 ale argitaratu ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, eta gutxitasun fisikoren bat duten Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei, erakundeei eta gizarte-entitateei banatuko dizkie.

Gasteizen, 2011ko azaroaren 30ean.

ELKARTEAN Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko Federazio Koordinatzaileak **gutxitasunen bat dutenek Euskadin dituzten baliabideen gidaliburu bat argitaratu du**, gutxitasun fisikoren bat dutenek eta haien senide eta ingurukoek behar duten **informazio guztia biltzeko** eta gutxitasun fisikoren bat dutenen eskubideak babesteko eta haien beharrei erantzuteko baliabideak eta laguntzak ezagutarazteko.

Datorren larunbatean, **abenduaren 3an, Gutxitasunen bat duten Pertsonen Nazioarteko Eguna** da, eta ospakizun horren harira aurkeztu dute ekimena. Gidaliburuaren helburua da gutxitasunen bat duten Euskadiko 120.000tik gora laguni zuzeneko informazio baliagarria ematea tokiko, Euskal Autonomia



Erkidegoko eta Estatuko administrazioen baliabideei buruz, gutxitasunaren gaineko eskumenen egitura konplexua baita eta eskumenak zatikatuta baitaude eta, horregatik, gutxitasunen bat dutenak eta haien ingurukoak nekez orienta baitaitezke.

Hain zuzen ere, gutxitasunaren gaineko eskumenen egitura oso konplexua dela-eta, gutxitasunen bat duten askok **ez dakite zer baliabide dituzten eskura, ez dituzte erabiltzen eskura dituzten baliabide guztiak edo denbora asko galtzen dute leihatilaz leihatila, administrazioko izapideak egiten.**

Gutxitasunen bat dugunon egoera are zailagoa da, mugikortasun-arazoak baititugu baliabideak eta azpiegiturak erabili ezin ditugulako eta beste talde batzuen aldean atzeratuta baikabiltza informazio- eta komunikazio-teknologia berrien erabileran.

Oztopo asko ditugu inguruan aukera-berdintasuna erabatekoa izateko, eta baztertuta gaude oraindik alde askotatik. Gizarte-egiturek, lekuek, oztopo arkitektonikoek, komunikazio-oztopoek, gizartearen jarrerak eta jokaerak gaitasunak galarazten dituzte inguruan eta, horregatik, gutxitasunen bat dugunok baztertzen gaituzte.

Gidaliburuak zuzeneko informazio baliagarria dakar: gutxitasun-maila aitortzeko eman beharreko urratsak; laguntzak eta zerbitzuak bideratzeko izapideak; eta gutxitasunen bat dutenek eta haien senideek zer baliabide dituzten gaur egun hezkuntza, lan, familia, justizia, garraio, etxebizitza, irisgarritasun eta osasunaren arloan.

62 orrialde ditu, eta Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan dauden laguntzei buruzko informazioa dakar, antolatuta. Gai hauek lantzen ditu, besteak beste: diru-laguntzak bideratzeko izapideak, gutxitasunen bat duten haurrak hezkuntza-sistemako maila guztietan eskolatzeko laguntzak, enplegua sustatzeko laguntzak, zerga-kenkariak, gutxitasunen bat dutenen autonomia hobetzeko baliabideak, garraio publiko egokituak, aparkatzeko txartela bideratzeko izapideak, autoeskola egokituak, etxebizitza egokituak, osasun-arloko laguntza, eta gurpil-aulkiak eta laguntza teknikoak eskatzeko izapideak.

Gainera, gidaliburuak badakar **baliabide eta helbide interesgarrien direktorio alfabetiko bat: telefono-zenbakiak, webguneen helbideak eta helbide elektronikoak.**



Confederación Coordinadora de
Personas con Discapacidad Física
y/u orgánica del País Vasco.
Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa
duten Euskal Erkidegoko Federazio
Koordinatzailea

Federazioak **15.000 ale** argitaratu ditu, **euskaraz eta gaztelaniaz**, eta gutxitasun fisikoren bat duten Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei banatuko dizkie, ELKARTEAN osatzen duten elkarteen, erakundeen eta alor honetan lan egiten duten gizarte-entitateen bitartez. Aldian-aldian eguneratuko du gidaliburua eta, gainera, digitalizatu egin du, *on line* jartzeko, www.elkartean.org, www.eginez.org eta www.fekoor.com helbideetan.

ELKARTEAN Federazioak gainbegiratuta, Alter Civites aholkularitza-enpresak prestatu du proiektu handinahi hau, gizarte-gaietan espezializatuta baitago.

Lau atalek osatzen dute gidaliburua. Lehenengoak azaltzen du zein diren zerbitzugileek gutxitasun-maila eta gutxitasuna bera aitortzeko prozesua eta izapideak. Bigarrenak deskribatzen du zein diren laguntzak eta baliabideak eskuratzeko eskubidea lortzeko prozedurak eta izapideak, hamar multzotan: hezkuntza, lana, familia, helburua, justizia, laguntzak, garraioa, etxebizitza, ibilerraztasuna eta osasuna. Hirugarrenak glosario bat dakar, gutxitasunaren alorrean erabiltzen diren terminoak definitzeko. Azkenik, laugarrenak baliabide eta helbide interesgarrien direktorio bat dakar.

ELKARTEAN Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko Federazio Koordinatzailea 1986an sortu zen. EAEko hiru lurraldeetako 13.000 lagun biltzen ditu, eta Eginaren Eginez, Elkartu eta Fekoor elkarteek osatzen dute; Arabakoa da Eginaren Eginez, Gipuzkoakoa Elkartu, eta Bizkaikoa Fekoor.

Federazioaren helburua da gutxitasun fisiko edota organikoren bat dutenen egoera eraldatzea, baztertuta baitaude, eta horiek aukera berdinak izateko eta modu aktiboan parte hartzeko bidean aurrera egitea, guztiok barnean hartzen gaituen gizarte baten esparruan.

Informazio gehiago lortzeko edo harremanetan jartzeko:

Silvia García: 688 878 546 / Belén Uberti: 688 878 547